



MENDI IRTEEREN INFORMAZIOA INFORMACIÓN DE EXCURSIONES TXANTREA MENDI TALDEA



Laguntzen du
Colabora

txantreamenditaldea@gmail.com

<http://www.txantreamenditaldea.com>

<https://www.facebook.com/profile.php?id=100054594633792>

Orria z./ Hoja n. 516

2026/01/18

Igoera-Zirkularra/Ascensión-Circular

Itzulegi-Bardakomendi-Aritzakun

Circular desde Itzulegi por Bardakomendi al Valle *perdido* de Aritzakun

Itzulegitik eta Bardakomenditik Aritzakun ibar *ezkutura*

Irteera ordua-Hora de salida: **Goizeko 8:00ak - 8:00 de la mañana**

Irteera lekua-Lugar de salida: https://maps.app.goo.gl/eyMXtZgaqGqWejYf7?g_st=ic San Cristobal kalea (Plaza Txantrea n° 11.)
(Parada bus junto a centro salud)

Zailtasuna - Dificultad: Zeharkaldi/igoera ertaina-Travesía/subida moderada

Iraupena-Duración aproximada: 5-6 ordu

Igoera-jaitiera-Desnivel: 785 m  785 m 

Luzera-Distancia: 14,75 Km

Beharrezko materiala-Material obligatorio: Mendirako arropa, oinetakoak. Ropa y calzado de montaña.



Itzulegiko lepoan emanen diogu hasiera 2026ko lehenengo mendi irteerari. Baztan Ibarreko zati izkutua den Aritzakun ibarrera jeitsiko gara. Itzulegiko lepotik eta Gorramendiko mendigunearen Bardakomendi igo ondoren, Gorostiko lepoan dagoen trikuharria bisitatu eta eta gero Aritzakun aidera, beherantz, abiatuko gara. Jeitsieran Itsusiko Harrien ikuspegiaz gozatuko dugu baita hauen tontorretatik amiltzen den Espaltza ur-jauziaz ere.

Daremos comienzo a la primera salida montañera de 2026 en el collado de Itzulegi. Descenderemos al valle de Aritzakun, parte oculta o desconocida del Valle de Baztan. Desde el collado de Itzulegi y tras subir Bardakomendi, del macizo de Gorramendi, visitaremos el dolmen situado en el collado de Gorosti y nos dirigimos en descenso hacia Aritzakun. En la bajada disfrutaremos de la vista de las Peñas de Itsusi y de la cascada de Espaltza que se precipita desde sus cimas.

Aritzakun eta Urritzate: Baztango ibar galduak ezagutu:

Baztan aldean ezkutatuta daude Aritzakun eta Urritzate; bi ibar ezezagun horiek altxor ugari gordetzen dituzte.

Bi haranak **Baztango Udalerrian** daude (Nafarroa), baina mendiengatik Baztandik kanpo daudela dirudi. Baztan aldeko ipar-ekialdean daude, eta muga egiten dute **Itsasu** (Lapurdi) eta **Bidarrai** (Nafarroa Beherea) herriei. Gaurkoan **Aritzakun** bisitatu dugu, **Urritzate** beste une baterako utziz. Bi ibarren artean, **Gorramendi mendigunea** dugu, eta mendigunearen bi aldean leku malkarretatik sortzen diren baserreka txikiak bat eginda sortzen dira aipatutako bi errekek, **Aritzakun** eta **Urritzate**, beren bidea ibarren ondoraino. Behin bi errekek ibarren amaieran egonda, **Sumusuko Borda** inguruan, elkartzen dira, eta **Bastan** erreka sortzen dute (eta **ez Baztan**). Ondoren, **Errobi ibaira** isurtzeko euren urak **Bastanek**.



Aritzakun y Urritzate: conocer los valles perdidos de Baztan:

En la zona de Baztan se esconden Aritzakun y Urritzate, dos valles desconocidos que guardan numerosos tesoros.

Estos dos valles se encuentran en el municipio de **Baztan** (Navarra), pero por sus montes parece que están fuera de Baztan. Se encuentran al noreste de Baztan y limitan con **Itsasu** (Lapurdi) y **Bidarrai** (Baja Navarra). Hoy visitamos **Aritzakun**, dejando **Urritzate** para otro momento. Entre ambos valles encontramos el **macizo de Gorramendi**, en el que las pequeñas regatas que surgen de su escarpadas cimas de ambos lados del macizo, se unen para dar paso a las dos regatas citadas, **Aritzakun** y **Urritzate**. Una vez que los dos arroyos se encuentran al final del valle, en la zona de **Borda Sumusua**, se unen y crean el arroyo **Bastan** (que **no** el **Baztan**). Posteriormente, **Bastan** verterá sus aguas al **río Errobi**.



Gorramendiko mendigunetik barrena Aritzakun ibar ezkuturaino eginen duguna

* Aurretik aipatu bezala, **Itzulegi lepoan** emanen diogu hasiera gure ibilbideari. Hasieran **Gorramendiko mendigunean** barneratuko gara. Mendigunearen ekialdeko basoan zehar lepoz lepo joanen gara, **Olaintzingo Haitzaren lepoa**, **Unizko lepoa**, **Burdinmotzeko lepoa**. Hemen ezkerrera joz **Bardakomendi** edo **Akomendi (956m)** igoko dugu, ondoren **Gorostiko lepo** aldera zertxobait jeitsiko gara gure ezkerraldean aurkitzen dugun bidea hartzeko. Bide honek, jeitsiera handi samar batean, **Aritzakun ibarrean**, **errekan**, utziko gaitu. Jeitsiera honetan, eguraldiak lagun, oso ikuspegi zabalaz gozatuko dugu; lehenbizi eta ondoren **Okoka mendia**, parez pare **Itsusiko Harriak** eta euren tontor malkartsuetatik behera amiltzen den **Espaltza ur-jauzia**. Behekaldean **Aritzakun ibarraren** hasiera izanen dugu esperoan. Errekarekin bat egin ondoren ezkerraldera joko dugu **Aritzakun ibar** osoa zeharkatzeko. Errekaren ondoren goazela inguruan aspaldian auzoa izan zenaren arrastoak aurkituko ditugu. Hainbat zubi, **Maribeltzeneko Zubia**, eta borda, **Goienetzeko borda**, baita errota izandakoa. Aurrerago antzinako **eskola** eta **frontoia**. **Itzulegi** aldera, gorantz, joanen gara beste hainbat borda pasatuz eta bidea edo pista tartekatuz.

* **Megalitoak eta urrezko meak**. Gaur egun **Aritzakunen** eta, ia inor ez da bizi, baina historiako hainbat garaitan utzitako arrastoek lehenago kontrakoa izan dela adierazten dute. Historiaurreko megalito anitz badira inguruko mendi kasko eta lepoetan. Lepoetan, **Eneolitiko** eta **Brontze Aroko** trikuharri ugari daude. Beste aldetik, **Aritzakunen**, eskola aldean edo, **meatze batzuen arrastoak** ikusten dira mendi errepidearen bazter batean. Eremua nahiko utzia badago ere, landarediak ia guztia hartu du, oraindik meatze lanen arrastoak ikus daitezke. Meatzaritza arrasto horiek erromatarrek egin omen zituzten, handik urrea ateratzeko. Erabat segurua ez bada ere, erromatarrek hemen ibili izana posible litzateke, **Urritzaten Bidarra** (Nafarroa Beherea) eta **Erratzu** (Baztan) lotzen zituen **galtzada erromatar** baten arrastoak baitaude.

Recorrido por el macizo de Gorramendi hasta el oculto valle de Aritzakun

* Como se ha comentado anteriormente, iniciaremos nuestra andadura en el collado de **Itzulegi**. Al empezra nos adentraremos en el **macizo de Gorramendi**. A lo largo del bosque oriental del macizo iremos collado a collado, el **collado de la Peña de Olaintzin**, **collado de Uniz**, **collado de Burdinmotz**. Aquí giramos a la izquierda para ascender por **Bardakomendi o Akomendi (956 m)** y descender ligeramente hacia el **collado de Gorosti** para tomar el camino que encontramos a nuestra izquierda. Este camino, en un gran descenso, nos dejará en el **valle de Aritzakun**, en el arroyo. En esta bajada, y con ayuda del tiempo, disfrutaremos de unas muy amplias vistas; primero y al lado, el **monte Okoka**, las **Peñas de Itsusi** frente a frente y la **cascada Espaltza** que se precipita por sus escarpadas cimas. En la parte inferior nos espera el inicio del **valle de Aritzakun**. Tras enlazar con el río, giramos a la izquierda para atravesar todo el valle de Aritzakun. Junto al río encontramos restos de lo que fuera el barrio en tiempos pasados. Varios puentes, **el Puente de Maribeltzen**, y bordas, **la borda de Goienetxe**, así como el antiguo **molino**. Más adelante la antigua **escuela** y el **frontón**. En la subida de vuelta hacia Itzulegi, iremos pasando otras bordas e intercalando el camino o la pista.

* **Megalitos y minerales de oro**. Hoy en **Aritzakun** ya casi nadie vive, pero las huellas dejadas en varias épocas de la historia indican que esto antes no ha sido así. Existen numerosos megalitos prehistóricos en los collados y cascos de montaña de la zona. En los collados abundan los dólmenes del **Eneolítico** y de la **Edad de Bronce**.

Por otro lado, en **Aritzakun**, en la zona escolar, se ven restos de algunas minas en un rincón de la carretera de montaña. Aunque la zona está bastante abandonada, la vegetación ha ocupado casi todo, todavía se pueden ver restos de trabajos mineros. Estos restos mineros fueron fabricados por los romanos para extraer de allí el oro. Aunque no es del todo seguro, sería posible que los romanos hayan andado por aquí, ya que en **Urritzate** hay restos de una **calzada romana** que unía **Bidarra** (Baja Navarra) con **Erratzu** (Baztan).



Iruhelakaskoa ezkerrean eta Itsusiko Harriak eskauinaldean Aritzakun errekatik

Topographic map of the Gorrinakaldea area in the Basque Country, showing a proposed orange trail route. The map includes contour lines, place names, and various icons for points of interest. A scale bar at the bottom indicates a distance of 51 meters.

Topographic map of the Gorrinakaldea area in the Basque Country, showing a proposed orange trail route. The map includes contour lines, place names, and various icons for points of interest. A scale bar at the bottom indicates a distance of 51 meters.

